



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 19a

54. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Zarrakazteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or).
- Murillo el Frutoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (16. or).
- 2003. urtean etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulua igotzeari buruzko aholkularitza txostena, Comptos Ganberak egina (21. or).
- Arradako Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (23. or).
- 28/2003 Erabakia, maiatzaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak emana, Gloria Vicenta Arancón Largo andrea Arartekoaren aholkulari tekniko izendatzen duena (28. or).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Zarrakazteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldi-koa, Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Zarrakazteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldi-koa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Zarrakazteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldi-koa, Comptos Ganberak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (2. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
 - IV.1. 2001eko aurrekontuaren likidazioa (3. or.).
 - IV.2. 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (3. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (3. or.).
 - IV.4. Finantza- eta ekonomia-egoera 2001eko abenduaren 31n (3. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (4. or.).
- VI. Zarrakazteluko Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (8. or.).
 - VI.1. 2001eko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (8. or.).
 - VI.2. Finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n (9. or.).
 - VI.3. Gorabeherak (11. or.).
 - VI.4. Administrazio-kontratazioa (11. or.).

VI.5. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (12. or.).

VI.6. Hirigintza (13. or.).

1. eranskina. Zarrakazteluko Udalaren organigrama, 2001eko plantilla organikoaren arabera (14. or.).
- II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (15. or.).

I. SARRERA

Zarrakazteluko Udala Erriberriko Merindadean dago, eta udal konposatu bat da, guztira 2.630 biztanle inguru dituena; horietatik 400 Figarolgo Kontzejukoak dira, 2001eko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera.

Udalak ez du inongo erakunde autonomorik sortu bere lana garatzeko.

Udalak ondoko mankomunitate eta udal batasunetan hartzen du parte:

- Aragoi Ibarreko Mankomunitatea.
- Zarrakazteluko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Tafalla aldeko Kirolen Mankomunitatea.
- Eder Partzuergoa.

Udalak 2001ean dituen kopururik garrantzitsuenak honako taula hauetakoak dira:

Aitortutako betebeharrak (pezetak, milakotan)	Aitortutako eskubideak (pezetak, milakotan)	Langileak, abenduaren 31n
252.826	239.160	7

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Toki Ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arau-

tzeko abenduaren 20ko 19/1990 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta Zarrakazteluko Udalaren 2001eko aurrekontuko gastu eta dirusarrera aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu arloan, araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoa da: 270, 271, 272 eta 273 zenbakiak dauzkaten foru dekretuak, guztiak 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira. Horien aplikazioa nahitaezkoa da 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

- a) Zarrakazteluko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoerak duen agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Jarduera ekonomiko-finanzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.
- d) Udalaren finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraikiz, Zarrakazteluko Udalaren (aurrerantzean, "Udala") eta bere erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, Toki kontabilitate publikoaren plan orokorrari jarraikiz. Plan hori egokitu da irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretura –Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu egituraren alorrean garatzen duen horretara–, eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitate jarraibide orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretura.

Eginiko lanaren aztergai nagusia dirusarreraren eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-

masen berrikuspena izan da, eta antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolari dagozkien puntuak aztertu ditugu.

Hirigintza arloari dagokionez, planeamendua- ren betetzeari buruzko ikuskapen bat egin dugu, eta haren aldaketak eta aurreikuspenen betetze- maila aztertu ditugu.

Espainiako Estatuko kanpo kontroleko organo- en koordinazio batzordeak onetsiriko fiskalizazio- printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen ara- bera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu dugu lana.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditu- gun iruzkin eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa-lana 2001eko maiatzean egin da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarenga- tik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei.

IV. IRITZIA.

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Zarrakazte- luko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko finantzen egoera-orriak aztertu ditugu. Udalaren ardurapean eginak dira, eta txos- ten honetako V. atalean jaso ditugu, laburbilduta.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritzza egiteko one- tsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. 2001eko AURREKONTUAREN LIKIDA- ZIOA

Erantsi dugun 2001eko aurrekontuaren likida- zio egoerak behar bezala agertzen ditu, fiskaliza- tutako ekitaldian udalak egindako eragiketa guz- tiak.

IV.2. 2001eko ABENDUAREN 31ko ONDARE- EGOERAREN AGERPENA

2001eko abenduaren 31ko egoeraren balan- tzeak Udalaren ondare-egoera behar bezala ager- tzen du, ibilgetua osatzen duten saldoen fidagarri- tasun eza salbu.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da.

IV.4. FINANTZA- ETA EKONOMIA-EGOERA 2001eko ABENDUAREN 31n

Zarrakazteluko Udalak finantza egoera ona zuen 2001eko abenduaren 31n: diruzaintzako gerakina 108 milioikoa zen eta aurrezpen garbia ehuneko 24koa; zorpetze-maila, berriz, ehuneko 6koa zuen.

Aurreko fiskalizazio txostena egin zenetik, 1992. urtea, iraganiko denbora dela-eta, ez da egin gomendioen jarraipena. Nolanahi ere, udalak izandako hobekuntza nabaria azpimarratu behar dugu.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak azalduko ditugu. Azalpena erosoan izan dadin, aipamena honako hauekara mugatuko dugu:

- Udalaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoa.
- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko eta funtzionalaren arabera.
- Udalaren egoera-balantzea, 2001eko abenduaren 31koa.
- Udalaren 2001eko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

Zarrakazteluko Udala, 2001

Dirusarrerren aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aldaketak (pezetak, milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aitortutako eskubideak (pezetak, milakotan)	Aitortutako eskubideak (euroak, milakotan)	Kobratutakoa (pezetak, milakotan)	Kobratzeko dagoena (pezetak, milakotan)	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztiarena
1	54.607	-	54.607	51.558	310	43.862	7.697	% 94	% 22
2	7.000	-	7.000	6.075	37	6.075	-	% 87	% 3
3	27.800	-	27.800	24.489	147	23.492	997	% 88	% 10
4	96.265	-	96.265	96.620	581	93.620	3.000	% 100	% 40
5	33.614	-	33.614	24.574	148	22.212	2.362	% 73	% 10
6	1.906	-	1.906	1.806	11	1.806	-	% 95	% 1
7	71.949	-	71.949	34.038	205	34.038	-	% 47	% 14
9	103.954	-	103.954	-	-	-	-	-	-
Dirusarrerak, guztira	397.095	-	397.095	239.160	1.437	255.105	14.055	% 60	% 100

Gastuen aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aldaketak (pezetak, milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aitorturiko betebeharrak (pezetak, milakotan)	Aitorturiko betebeharrak (euroak, milakotan)	Ordaindutakoa (pezetak, milakotan)	Ordaintzeko dagoena (pezetak, milakotan)	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztiarena
1	64.770	-	64.770	52.215	314	52.215	-	% 81	% 21
2	87.786	-	87.786	70.240	422	69.879	361	% 80	% 28
3	7.742	-	7.742	4.263	26	4.263	-	% 55	% 2
4	36.459	-	36.459	32.410	195	32.409	-	% 89	% 13
6	186.662	-	186.662	82.693	497	63.459	19.235	% 44	% 33
9	13.674	-	13.674	11.005	66	8.339	-	% 80	% 3
Gastuak, guztira	397.095	-	397.095	252.826	1.519	230.564	19.596	% 64	% 100

2001eko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera (pezetak, milakotan)

Funtzionala	Azalpena	Langileen gastuak	Ondasun aruntak eta zerbitzuak	Finantza- gastuak	Transfer. aruntak	Inbertsio errealak.	Aitoruriko Finantza pasiboak	betebeharrak, guztira	Guztizk. gain.%
1	Izaera orokorreko zerbitzuak	15.763	9.385	-	-	1.271	-	26.419	% 10
3	Gizartearen segurtasuna, babesa eta sustapena	23.692	-	-	7.834	-	-	31.526	% 12
4	Izaera sozialeko ondasun publikoak sortzea	12.760	48.235	-	12.237	81.422	-	154.654	% 61
5	Izaera ekonomikoko ondasun publikoen ekoizpena	-	11.705	-	-	-	-	11.705	% 5
6	Izaera orokorreko arautze ekonomikoa	-	915	-	-	-	-	915	% 1
7	Jarduera ekonomikoa eta produkzio sektoreen erregulazioa	-	-	-	306	-	-	306	-
9	Transferentziak administrazio publikoetara	-	-	-	12.033	-	-	12.033	% 5
0	Zor publikoa	-	-	4.263	-	-	11.005	15.268	% 6
	Guztira	52.215	70.240	4.263	32.410	82.693	11.005	252.826	% 100

Egoeraren balantzea 2001eko abenduaren 31n

AKTIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan	PASIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
IBILGETUA	1.470.049	8.835	ONDAREA	1.175.402	7.064
Ibilgetu materiala	687.325	4.131	Ondarea	1.127.223	6.775
Lurra eta ondasun naturalak	23.629	142	Aplikatzeko dauden emaitzak	48.179	289
Eraikinak	601.610	3.616			
Makinak, instalazioak eta tresneria	320	2			
Garraiogailuak	17	-			
Altzariak	53.639	322			
Informazio prozesuetarako ekipoak	5.327	32	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	261.329	1.571
			Jasotako kapital-dirulaguntzak	261.329	1.571
Ibilgetu ez-materiala	790	5			
Bestelako ibilgetu ez-materiala	790	5			
			EPE LUZEKO ZORRAK	94.364	567
Erabilera orok. inbertsioak eta ondasunak	781.934	4.700	Epe luzeko maileguak.	94.364	567
Lurra eta ondasun naturalak	39.327	237			
Herri ondasunetan eginiko inbertsioak	742.607	4.463	EPE LABURREKO ZORRA	30.663	184
			Aitorturiko betebeharren hartzekodunak	22.311	-
ZORDUNAK	66.934	402	Hartzekodunak, dirusarreraren itzulketarengatik	2.936	-
Aitorturiko eskubideen zordunak	64.836	390	Ente publikoak, kobratzeko eskubideengatik	2.052	2
Entitate publikoak	1.121	6	Aurrekont. ez diren bestelako hartzekodunak	3.364	127
Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	977	6			
			EMAITZAK	48.139	289
FINANTZA KONTUAK	72.915	438			
Bankuak eta kreditu-entitateak	72.915	438			
Aktiboa, guztira	1.609.898	9.676	Pasiboa, guztira	1.609.898	9.676

Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria, 2001-12-31n

(pezetak, milakotan)

	Diru-kopuruak
1. (+) Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak	65.812
Dirusarreraren aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	14.055
Dirusarreraren aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	50.780
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	977
Ken kobratzeko zailak diren saldoak	-
2 (-) Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak	(30.446)
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	(19.596)
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	(2.715)
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	(8.136)
3 (+) Ekitaldiaren amaieran diruzaintzan dauden funts likidoak	72.915
4 Finantzabide atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	-
6 Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (1-2 + 3 - 4)	108.281
DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	108.281

VI. ZARRAKAZTELUKO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

VI.1. 2001eko AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

- 2001eko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuak 397 milioi pezetako hasierako kredituak agertzen ditu. Hasierako aurreikuspen hauetan ez da aurrekontu-aldaketarik egin; horrenbestez, bat datoz behin betiko aurreikuspenekin edo aurrekontu bateratuarekin.

- Aitorturiko obligazioek 253 milioi pezeta egiten dute, eta ehuneko 64ko betetze-maila dute; hori azaltzeko, kontuan hartu behar da, funtsean, inbertsio errealean kapituluaren betetze maila txikia —ehuneko 44— izan dela; bestela esanda, aurreikusitakoak baino 104 milioi pezeta gutxiago erabili dira.

- Desbideraketa hori zor zaio, batez ere, 2001eko aurrekontuan jaso izanari aurreikusirik zegoen 187 milioi pezetako gastu bati, eraikin bat zaharberitzeko, udal liburutegian egokitze-lanak egiteko eta kaleetan zorua jartzeko, bai eta pilotalekua eraikitze ere; inbertsio horiengatik, ordea, 2001eko abenduaren 31n 83 milioi pezetako betebeharrak baizik ez dira aitortu. Desbideraketa nagusiak gertatzen dira pilotalekuko obrak ez direlako hasi —17 milioi pezetako aurrekontua zuten—; eraikinaren zaharberitzea, berriz, hasita dago, eta 77 milioi pezeta merkeagoa izan da.

Ehunekoetan, honela xehekatzen da gastuen aurrekontua:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendukoak	62
Inbertsiokoak	33
Finantza-zamakoak	5
Guztira	100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuenak inbertsio errealean gastuei —udal liburutegia egokitze obren ondorioz— eta funtzionamendu gastuei dagozkienak dira; azken atal horretan, langileen lansariak dira aipatu beharrekoak, ehuneko 21 egiten baitute.

Langileriari dagokionez, 2001eko abenduaren 31n 7 langilek ziharduten lanean udalean:

Langile mota	Zenbat
Funtzionarioak	3
Lan kontratuko langile finkoak	1
Behin-behinekoak eta programetakoak	3
Guztira	7

Kontabilitate- eta administrazio-alorrean 3 pertsona aritzen dira lanean: idazkari bat eta bi administralari laguntzaile.

Goi karguen gastuak 408.000 pezeta egiten du, eta den-dena udalbatzako kideen aseguruari dagokie.

- Aitorturiko eskubideei dagokienez, 239 milioi-koak dira, ehuneko 60ko betetze-mailarekin. Horren arrazoiak dira, batetik kapital transferentzien kapituluak izan duen betetze-maila —72 milioi pezetako aurreikuspena eta aitorturiko eskubideak 34 milioi pezetakoak dira, hau da, ehuneko 47ko betetze-maila—.

Ehunekoen arabera, hauxe da dirusarreraren aurrekontuaren osaera:

Dirusarrerak	Ehunekoa
Tributuen bidezkoak	35
Transferentzien bidezkoak	54
Ondarearen ondoriozkoak	11
Guztira	100

Hitz batez, 2001eko aurrekontuaren finantzabide nagusia transferentziak izan dira: aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 54 finantza iturri horretatik datoz. Tributu-dirusarrerek, ordea, ehuneko 35 egiten dute.

Ondoko taulan tributu nagusiak eta 2001ean horiengatik aitorturiko zenbatekoak (pezetak, milioitan) azaltzen dira:

Tributu-figura	Zenbatekoa
Zuzeneko zergak	
Hirilur- eta landalur-kontribuzioa	30.155
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	7.171
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	29
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	14.203
	51.558
Zeharkako zergak	
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	6.075

Nabarmena da hirilur- eta landalur-kontribuzioaren pisu berezia, bai eta ibilgailuen zirkulazio zergaren garrantzia ere, biek gainontzeko tributu-figurak erraz gainditzen baitituzte.

Udalak bildutako zergei dagokienez, ondotik ageri dira Udalak zerga bakoitzean aplikatzen dituen tarifak, Toki ogasunei buruzko Foru Legeak baimendutako gehienekoekin alderaturik:

Tributua	Ehuneko/adierazlea	
	Udala	Toki ogasunei buruzko Legea (1)
Hirilur-kontribuzioa	0,2717	0,10 - 0,50
Landalur-kontribuzioa	0,3372	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,23	1 - 1,4
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	11,5	8 - 20
• 5 urte bitarte	2,2	2,2 - 3,3
• 10 urte bitarte	2,1	2,1 - 3,2
• 15 urte bitarte	2	2,0 - 3,1
• 20 urte bitarte	2	2,0 - 3,1
Eraikin, instalazio eta obrak	2,6 eta 3,5	2 - 5

(1) 2001ean indarra zuen legeriari jarraikiz.

• 2001eko betetze-egoerak 14 milioiko aurrekontu-defizita agertzen du. Emaiza hori aitorturiko eskubideen eta betebeharren arteko aldearen ondorioa da. Saldo hau bat dator aurrekontuaren emaitzarekin, zeren eta Udalak ez baitu aurreikusten finantzaketan desbideraketarik egotea, ez eta diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gasturik ere.

• 2001eko abenduaren 31n, ordaintzeko dauden zenbatekoek –gastuen erresultak– 30 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 3 milioi pezeta aurreko ekitaldietatik heldu dira. Kobratzeko dauden zenbatekoek –diru-sarreraren erresultak– 66 milioi pezeta egiten dute, horietatik ehuneko 22 aurreko ekitaldietakoa da.

• 2001eko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakina 108 milioi pezetakoa da. Kopuru hori honako honen emaitza da: kobratzeko dauden eskubideak –9 milioi pezeta–, ordaintzeko dauden betebeharrak –30 milioi pezeta– eta funts likidoak –73 milioi pezeta–. Inongo probisorik ez dago aurreko ekitaldietatik kobratzeko dauden saldoengatik, baina ondokoa da kobratzeko dauden eskubideek daukaten antzinatasuna:

	Pezetak, milakotan
1995 eta aurrekoak	15.005
1996	3.510
1997	6.856
1998	13.026
1999	5.386
2000	6.997
	50.780

Azpiarratu beharra dago diruzaintzako gerakina, 108 milioi pezeta egiten dituen, gastu orokorretarako gerakinari dagokiola guztiz.

• Azkenik, ondoko taulan erakusten da, ehunekoak erabiliz, 2001eko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua.

Azalpena	Ehunekoak
Izaera orokorreko zerbitzuak	10
Gizartearen segurtasuna, babeseta eta sustapena	12
Izaera sozialeko ondasun publikoak sortzea	61
Izaera ekonomikoko ondasun publikoen ekoizpena	5
Izaera orokorreko arautze ekonomikoa	1
Transferentziak administrazio publikoetara	5
Zor publikoa	6
Guztira	100

Aipatzekoa da Udalaren 2001erako gastuaren ehuneko 73 gizarte izaerako ondasun publikoen eta gizarte segurtasun, babes eta sustapenaren produkzioan metatzen direla.

VI.2. FINANTZA-EGOERA 2001eko abenduAREN 31n

Ondoko taulan 2001ean Udalak dauzkan ratio edo adierazleak ageri dira, aurreko ekitaldiekin konparatuta:

Adierazleak	2001 ⁽¹⁾	2000 ^{(1) (2)}
Aurrekontu superabita (defizita) (pezetak, milioitan)	(14)	(20)
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetatan)	90.935	79.927
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetatan)	96.132	87.331
Biztanle bakoitzeko finantza-zama (pezetatan)	5.805	2.792
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetatan)	31.225	29.174
Kobrantez betetzea (ehunekotan)	94	95
Ordainketen betetzea (ehunekotan)	92	83
Zorpetze-maila (ehunekotan)	8	4
Zorpetze-muga (ehunekotan)	23	26
Aurrezki garbia (ehunekotan)	17	22
Langileria-indizea (ehunekotan)	21	23
Inbertsio-indizea (ehunekotan)	33	32
Dirulaguntzekiko mendetasuna (ehunekotan)	55	46

(1) Kalkulua egiteko, 2000rako 2.660 biztanleko populazioa aintzat hartu da eta 2001erako 2.630 biztanleko populazioa, Udalak 2000ko eta 2001eko urtarrilerako egindako estimazioei dagozkienak.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia.

Azterketa horretatik ondokoa azpiarratu behar dugu:

• 2001eko ekitaldian aurrekontu-defiziteko egoerari eutsi zaio, 2000n bezala, baina 20 milioitik 11 milioira pasatu da. Egoera hau zor izan zaio, bereziki, 2001ean kapital-transferentzien ondoriozko dirusarrerak handitu izanari, udal liburutegia egokitzeko obretarako jaso diren kapital transferentzietatik heldu diren dirusarrerengatik, nahiz

eta obra hori 2001eko abenduaren 31n bukatu gabe zegoen.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 14 igo dira eta gastuek ehuneko 10 egin dute gora, eta horrek ere justifikatzen du udalak, aurreko ekitaldiaren aldean, 2001eko ekitaldian izan duen defizita.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zama nabarmen handitu da, udalak finantza-pasiboen aldaketarengatik gastuaren kapitalean 11 milioi pezetako kopurua erregistratzen baitu, hain zuzen ere banku-entitateekin izandako kredituen mugak murriztu izanari dagozkienak.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 7 hazi dira 2000. urtekoen aldean, funtsean eraikin, instalazio eta obren gaineko zergak gora egin izanari.

- Udalak banku-kredituen mugak murrizteari emaniko tratamenduaren ondorioz, zorpetze maila ehuneko 8koa da 2001ean; aurreko ekitaldian, berriz, ehuneko 4koa izan zen. Izan ere, aurten aurreko ekitaldian emandako kredituetako mugak murriztu egin dira.

- Aurrezki garbia 2000n ehuneko 22 izatetik 2001ean ehuneko 17 izatera iragan da; horrek esan nahi du 2001eko ekitaldian Zarrakazteluko Udala gauza izan dela baliabide korranteekin funtzionamendu gastuei eta finantza zamari aurre egiteko.

- Dirulaguntzekiko mendekotasunak gora egin du 2001ean, funtsean kapital transferentziek gora egitearen ondorioz.

2001eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	2001
Diruzaintza-gerakina	108
Epe luzeko zorra	94

Hau da, 2000n diruzaintza-gerakinak epe luze-ko zor guttia hartzen du.

Udalak 2001eko abenduaren 31n zuen epe luzeko zorra, funtsean, zenbait banku-entitatetatik jasotako maileguei zor zaie; haien xedea zaharrentzako egoitzaren eraikuntza finantzatzea zen. Mailegu horien mugaeguna 2013an dago.

Lehen esan dugun bezala, udalak egoerari buruzko balantzean epe luzeko zor baten moduan erregistratzen du 1999an banku entitate batekin izenpeturiko lau kreditutako erabilpen muga; kreditu horiek, guztira, 29 milioi pezeta egiten dute. Halaber, diruzaintza-gerakinak erabiltzeko dagoen kreditu-mugari dagokion zenbatekoa biltzen du.

Aurrezki gordina pasatu da 52 milioi pezetakoa izatetik aurreko urtean 48 milioikoa izatera 2001ean, batez ere transferentzia arruntak handitu direlako.

Azkenik, ondoko laukian alderatu egiten dira, ratio jakin batzuetarako, Zarrakazteluko Udalaren 2001eko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte bera duten udalen 1999ko batez bestekoa¹.

Ratioak	1.001-3.000 biztanleko udalak 1999	Zarrakaztelu 2001
Biztanle bakoitzeko gastu arrunta (pezetatan)	70.923	60.505
Biztanle bakoitzeko dirusarrera arrunta (pezetatan)	101.158	77.306
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrera (pezetatan)	51.681	31.225
Zorpetze-muga (ehunekotan)	32	24
Zorpetze-maila (ehunekotan)	9	6
Aurrezki garbia (ehuneko)	22	18

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik, honakoak azpimarratu nahi ditugu²:

- Gastu arrunta gutxi gorabehera 10.000 pezeta txikiagoa da antzeko ezaugarriak dituen udal batek 1999an batez beste duena baino. Halaber, Zarrakazteluko biztanle bakoitzeko dirusarrera arrunta 24.000 pezeta txikiagoa da antzeko ezaugarriak dituen udal batek batez beste duena baino.

- Tributu arloko dirusarrerak, biztanleko, batez bestekoa baino 20.000 pezeta txikiagoak dira.

- Zarrakazteluko Udalaren zorpetze-muga eta -ahalmena Nafarroako biztanle tarte bereko udalen batez bestekoa baino txikiagoak dira.

- Bestalde, Udalaren 2001eko aurrezki garbia Nafarroako biztanle-tarte bereko udalen batez bestekoa baino txikiagoa da.

(1) Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta Ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.

(2) Gogoratzen dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

VI.3. GORABEHERRAK

Udaleko Idazkaritzak eman digun informazioaren arabera, une honetan ez dago inongo auzi edo prozedurarik haren aurka, 2001ean erator litezkeen pasibo garrantzitsurik sor dezakeenik.

VI.4. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Erosketen sistemari buruz eginiko laginketari jarraituz, ondoko gomendio orokorrak egin nahi ditugu:

- *Ahaleginak egitea ekitaldi bakoitzak ekitaldian bertan sortutako gastu guztiei euts diezaien.*

- *Gastuak jatorri ekonomikoaren arabera egoztea aurrekontuari.*

Zerbitzuen kontratazioari buruz eginiko lanean, zerbitzu batzuen prestazioetan akats formalak antzeman ditugu erabili diren kontratazio-prozedurak direla eta, ez baitatoz guztiz bat indarreko arauekin.

Kontratazioari buruzko arauak hertsiki aplikatzea gomendatzen dugu.

VI.4.2. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak berrikusi dira, urte anitzeko haien egozpena alde batera utzita:

Espedientea	Prozedura Adjudikazioa	Pezetak, milakotan Gastua, 2001	Obraren exekuzio- portzentajea
Beheko auzoan zorua jartzea	Negoziatua	19	100
Udal liburutegia	Negoziatua	59	75

Aztertutako espedienteek kapitulu honetako ekitaldiko betebeharren ehuneko 95 egiten dute.

Ondoren, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

a) Espediente hauek berrikusi ondoren, zenbait akats antzeman ditugu administrazio kontratazioa arautzen duten arau indardunen betetzean, bai eta espedienteen jarraipen administratiboan ere.

b) Aztertutako espedienteen alderdi aipagarrienak hauek dira:

- Beheko auzoan zorua jartzea

Zarrakazteluko udaleko auzo horretako zorua jartzeko urbanizazio obrei dagokie.

Obra 19 milioi pezetatan adjudikatu zen 2001ean, prozedura negoziatua erabiliz.

Udalak ekitaldiko gastutzat erregistratu du adjudikazioaren zenbateko osoa, baina adjudikazioa hartu zuen enpresak, 2001eko abenduaren 31n, ez du ezer ere fakturatu. Udaleko langileen adierazpenen arabera, egun hartan, obraren ehuneko 50 egunik zegoen.

Espediente hori aztertuta, ikusi dugu bertan ez dagoela jasota ez idazkaritzak ez alkatetzak administrazio klausulen plegua eta baldintza teknikoak onetsi izanari buruzko alde aurretiko txostena. Kontratazio mahaiaren eta batzorde teknikoaren izendapena ere ez dira jaso.

- Udal liburutegia eraikitzea

Obra 2001ean adjudikatu zen, 79 milioi pezetatan, prozedura negoziatua erabiliz; lau enpresari gonbita egin ondoren aurkeztutako proposamen bakarrari adjudikatu zitzaion.

Ez da espedientearen agertzen idazkaritzaren eta Alkatetzaren aurreiazko txostena, administrazio-baldintzen eta/edo baldintza teknikoaren orriak onestekoa.

VI.5. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuta, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko litzukeen neurriei buruzko gomendio nagusiak eman go ditugu.

Hainbat alderdiri dagokionez, aipatzen diren gomendioak ezarrita edo ezarpen-fasean daude 2002ko ekitaldian zehar.

VI.5.1. Antolamendu orokorra

Comptos Ganberak hauxe gomendatzen du:

- *Aurrekontuak udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren gida-dokumentua izan behar du, eta ez legeak ezarritako nahitaezko dokumentu soil bat. Erabakiak hartzeko oinarritzko dokumentua aurrekontua izan dadin, beharrezkoa da kontabilitatea gaurkotua edukitzea eta aldiari-aldiari aurrekontu-betetzeari buruzko egoera-orri bat aurkeztea. Horrela, eginiko gastua eta konprometitu daitekeena ezagutuko da eta, beharrezkoa bada, behar diren aurrekontu-aldaketak egin ahalko dira.*

- *Plantilla udal kudeaketaren beharrezko egoitzeko azterlan bat egitea, haren arrazoizkotasuna, lanpostu bakoitzeko lan zama eta lansari mailak eta gastu sozialak ezagutzeko, Zarrakazteluko Udaleko administrazio langileen kudeaketaren plangintza dela-eta idazkaritzak eginiko txosten batean adierazten den bezala; bertan esaten da bulegoetako langileen plantilla organikoa handitu behar dela, egun dauden langileek lan ugari baidute.*

- *Barne araubideko erregelamendu bat egitea, udalaren organo exekutiboaren eskumenak definitzeko eta eskumenak organoen artean banatzeko.*

- *Kudeaketarako oinarritzko prozedurak idatziz jartzea; exekuzio-fase bakoitza identifikatu behar da, eta bakoitzari erantzule bat esleitu behar zaio.*

- *Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloetan eragina duen egintza orok honako baldintza hauek bete beharko ditu:*

a) *Behar bezala baimenduta.*

b) *Kontabilitate-dokumentu baten bidez behar bezala bermatuta egon behar dute, exekuzio-oinarrietan ezarritakoari jarraituz.*

c) *Behar den justifikazioa izan beharko du, eta, fakturei dagokienez, ikus-onetsia izan beharko dute.*

d) *kontu-hartzaileak ikusita behar du.*

VI.5.2. Inbentarioa-ibilgetua

Hona gure gomendioak:

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak, bajak eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatuzko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpidei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, Udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VI.5.3. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

Egiaztatu ahal izan dugu JEZaren bilketan ez dela beti aplikatu udalak 2001erako 7/96 Foru Legearen arabera onetsitako tarifen gainetik ezarritako gehikuntza (% 23).

Hona gure gomendioak:

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.*
- *JEZaren igoera orokorrean udalak onetsitako tarifen eguneratzearen arabera aplikatzea.*

VI.5.4. Itxitako ekitaldiko erresultak

Ikusi ahal izan dugu 2001eko abenduaren 31tik itxitako ekitaldietatik kobratzeko dauden eskubideak badaudela, guztira gutxi gorabehera 51 milioi pezeta egiten dutenak; horietako asko 1996koak dira.

Diruzaintzako gerakinari buruz ari ginela azaldu dugun bezala, udalak ez du kobratzeko zailtza jotzen diren zenbateko batzuen probisioa egin, hain zuzen ekitaldia itxi ondoren zeuden zor batzuetatik heldu direnak, zeren eta ez baitu irizpide bat ezarri zehazteko saldo zordun bat kobratzen zaila noiz den zehazteko.

Hona gure gomendioa:

- *Zordunen saldoa depuratzea, behar diren probisioak sortuz, bai eta gaurkotze programa bat egitea ere, ordainketarik egiten ez den kasuetarako, berankorren saldoen jarraipen egokia egin ahal izateko moduan.*

VI.5.5. Alderdi orokorrak

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuko gastuak eta dirusarrerak sortzapearen arabera kontabilizatzea, aurrekontuaren betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko.*
- *Gastuak eta dirusarrerak euren izaera ekonomikoaren arabera egozte aurrekontuari.*
- *Aurrekontuak eta plantilla organikoa legeriak ezarritako epeen barnean prestatu eta onestea, eta urtean urteko aurrekontuen likidazioa arinago egitea.*

- *Kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako urteko oroit-idazkia egitea.*

VI.6. HIRIGINTZA

Zarrakazteluko Udalarentzat egun indarra duen araudia 1992an onartutako arau subsidiario bat da.

Zarrakazteluko zoruaren egoera ez da nabarmen aldatu 1992tik; arau subsidiarioen aldaketak partikularrek egindako obra berri txikiei egokitzeko izan dira.

Udalak, gaur arte, ez du idatzizko azterlan ekonomiko-finantzariarik egin, ezta jarduketa-programen betetze-mailari buruzko jarraipen bera-riazkorik ere.

Udalak hirigintza-arloko teknikaririk ez dauka plantillan. Hirigintzako planeamenduaren kudeaketa eta tramitazio teknikoak udalak urtero kontratatzen duen aparejadoreak egiten ditu.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Hirigintzaren arloan ezarritako betebeharrak orokorrak betetzea.*
- *Hirigintzaren arloko kontabilitate-betebeharrak betetzea.*
- *Azterlan ekonomiko-finantzarioen eta jarduketa programen betetze-mailari buruzko jarraipen egokia egin bedi.*
- *Hirigintzako administrazio espediente guztiak hurrengo helburuak lortzeko behar den dokumentazioa izan dezaten ahalegintzea:*
- * *Garbitasuna eta publizitatea bermatzea.*


Erabakiak behar adina txosten teknikoren babesarekin hartzea.

Interes publiko edota soziala behar bezala justifikatzea.

- *Udalaren barne kontroleko zerbitzuek –idazkaritzak eta kontu-hartzaitzak– hirigintzako espedienteen tramitazioan bete beharreko papera zehaztea.*

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan honen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako iza- pidea bete ondoren.

1. eranskina. Zarrakazteluko Udalaren organigrama, 2001eko plantilla organikoaren arabera



II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- Diru-sarreraren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak (1. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

Murillo el Frutoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Murillo el Frutoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Murillo el Frutoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (16. or.).
 - II. Helburua (16. or.).
 - III. Norainokoa eta mugak (17. or.).
 - IV. Iritzia (17. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren likidazioaren inguruan (17. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (17. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (17. or.).
 - IV.4. Egoera ekonomiko eta finantzarioa (17. or.).
 - V. Finantzen egoera-orriak (19. or.).
 - V.1. 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (19. or.).
 - V.2. Balantzearen egoera-inbentarioa (20. or.).
- Murillo el Frutoko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak (20. or.).
- Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (21. or.).

I. SARRERA

2001eko ekainaren 11n, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak eskaturik, erabaki zuen Nafarroako Comptos Ganberari eskatzea Murillo el Frutoko Udalari buruzko fiskalizazio txosten bat egin zezan.

Eskaera hori Comptos Ganberaren 2002. urterako lan plangintzan sartu zen.

Murillo el Fruto Nafarroako Erriberako udalerrri bat da, Iruña eta Tafallaren hegoaldean kokatua; 2002ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera, 750 biztanle dauzka.

Udalak bere jarduerak egiteko ez du erakunde autonomorik ez eta udal enpresa publikorik ere.

Udala ondoko mankomunitate eta partzuergo-etako kidea da:

- Aragoi Ibarreko Mankomunitatea.
- Zarrakazteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea (Tafalla).
- Nafarroako Erribera garatzeko estrategien partzuergoa (EDER Partzuergoa) (Tutera).

Udalaren zifra adierazgarrienak 2001eko ekitaldian hauexek dira:

	Exekutaturiko gastu-aurrek. (pezetak, milioitan)	Exekutaturiko dirusarrera-aurrek. (pezetak, milioitan)	Langileak, 2001-12-31n
Udala	237,1	195,4	3

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Toki ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzeko abenduaren 20ko 19/1990 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta Murillo el Frutoko Udalaren 2001eko aurrekontuko gastu eta dirusarrera aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateei aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gaitzetzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu gaitetako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren

21eko 270, 271, 272 eta 273 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Udalaren 2001eko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2001eko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasunaren arabera garatzen den ala ez aztertzea.

d) Zein zen udalaren finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Murillo el Frutoko Udalaren 2001eko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak bere eragiketak Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuko Instrukzioaren arabera erregistratzen ditu (273/1998 Foru Dekretua). Jarraibide hori 1999ko ekitaldian ezarri da udalean.

Beraz, eginiko lanak dirusarrera eta gastuen kapitulu ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoera-balantzea ikuskatu ditu, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolari buruzko gaiak aztertu ditu.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta araei men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak aplikatu ditugu, baldintzen eta aurretik udalari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoaren arabera.

Muga bezala, aipatu behar da udal inbentarioa behar adina garatu gabe dagoela, horixe baita balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuena; horrek eragina izan du udalaren ondare-egoera aztertzeo guk egindako lanean.

Udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasotzen dira txostenean.

Azterketa lana 2001eko uztailean egin dugu.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko langileei.

IV. IRITZIA.

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Murillo el Frutoko Udalaren 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko Comptos ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN INGURUAN

Honekin batera doa 2001eko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituena fiskalizaturiko ekitaldian udalak egindako eragiketak.

IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Udal inbentarioaren garapen eskasak –hura izanik, gainera, 2001eko abenduaren 31ko balantze-egoeraren kontusailik aipagarriena– Udalak 2001eko abenduaren 31n duen ondare egoerari buruzko iritzia ematea eragozten digu.

2001eko abenduaren 31ko balantzearen egoera-orrian jasotako ibilgetuak erakusten du epigrafe honetan aktibo inbentariagarri batzuk ez direla sartu; horrek udalaren ondare-egoera negatiboa (-178,1 milioi pezeta) izatea eragin du.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioan legezketasun printzipioaren betetzea dela eta zenbait salbuespen topatu ditugu.

Azpiparratu beharra dago Udaleko kontu-hartzaileak ezin izan duela bere eginkizuna normaltasunez bete, kontabilitatean zeraman atzerapenaren ondorioz eta espedienteak gauzatu baino lehen ez edukitzearen ondorioz, aurrekontuen kitapenari buruzko espedienteko kontu-hartzaile-tzaren txostenean jaso bezala.

IV.4. EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

Murillo El Frutoko Udalak 2001eko abenduaren 31n diruzaintza-gerakin negatiboak (-31,2 milioi pezeta) eta finantza-zorpetze handiak (175,2 milioi pezeta) markaturiko finantza-egoera dauka. Ekitaldiko zorpetze maila % 11,04koa da, % 7,31ko zorpetze-muga nabarmen gaindituz.

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu Murillo el Frutoko Udalak ondokoak egin behar dituela:

a) Indarra duen legediaren arabera, ekitaldiko aurrekontuen betetzean kontu-hartzaitetzako eginkizuna egoki ezartzea; hori ondokoen bitartez lortu beharko litzateke:

– Kontabilitateari buruzko informazioa behar den garaian izatea, kontabilitate gaurkotua eraman ez. Horrek aukera emanen du kontusail bakoitzaren kreditua alde aurretik ezagutzeko.

– Informazioa ematea egindako gastuen kontu hartu aurretik, bai gastu korronteena bai inbertsio-gastuena ere, behar den fiskalizazioa egiteko.

b) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko.

c) Udal inbentarioa banakako elementuen arabera garatzea, balantzearen egoera-orria-inbentarioaren ibilgetuarekin adosturik, bereziki ekitaldiko inbertsio errealekin.

d) Kontratazio publikoaren arloan legez ezarritako prozedurei jarraitzea, kasu guztietan behar diren kontratazio espedienteak irekiz. Kontratazio espedienteen aldaketak indarreko arauetan ezarritako aldaketa-prozedurei jarraituz egin behar dira.

– Kontratistari entzutea.

– Txosten juridikoa

– Gastua alde aurretik fiskalizatzea.

– Kontratazio organoak aldaketa berariaz onestea.

Horri dagokionez, azpimarratu behar da gastuen aurrekontuko II. kapituluan gainditutako zenbait kontusail badaudela; bestalde, aipatzekoa da Magdalena kaleko urbanizazioa, guztira 5,5 milioi pezeta egin zituena eta espedienterik gabe egin zena.

Idazkari kontu-hartzaileak alderdi horiek behin baino gehiagotan adierazi ditu, eta oro har, aurrekontuen likidazioaren espedienteari buruzko 2002ko martxoaren 25eko kontu-hartzaitetzako txostenean ere islatu zituen.

e) Sortzapenaren printzipioa sistematikoki aplikatzea eskubideen likidazioan, zenbait tribututan eragiketen mozketan gertatu diren akatsak saihestuz; esate baterako, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan.

Finantzen ikuspuntutik, udalak egoera negatiboa du, zorpetze handia duelako eta diruzaintzako gerakin negatiboa duelako; hori dela eta, arreta berezia eskaini behar die aurrekontu-betetzearen formazko alderdiei eta egin beharreko gastuak handitzea suposatzen duten alderdi guztiei.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**V.1. 2001eko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

DIRUSARRERAK	Hasierako aurrekontua (pezetatan)	Behin betiko aurrekontua (pezetatan)	Kitatutako eskubideak (pezetatan)	Kitatutako eskubideak (eurotan)	Bete-tzearen %
1. Zerga zuzenak	15.499.834	15.499.834	15.083.900	90.656,06	% 97,32
2. Zeharkako zergak	1.800.000	1.800.000	2.553.360	15.346,00	% 141,85
3 Tasak eta bestelako dirusarrerak	11.395.300	11.395.300	11.641.397	69.966,21	% 102,16
4. Transferentzia arruntak	25.706.831	25.706.831	23.869.951	143.461,29	% 92,85
5. Ondare dirusarrerak	32.578.784	32.578.784	36.576.958	219.831,95	% 112,27
6. Inbertsio errealak besterentzea	9.500.000	9.500.000	250.740	1.506,98	% 2,64
7. Kapital transferentziak	36.019.149	89.879.578	77.466.556	465.583,38	% 86,19
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	18.866.602	0	0,00	% 0,00
9. Finantza-pasiboen aldaketak	56.014.944	56.014.944	28.000.000	168.283,39	% 49,99
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	188.514.842	261.241.873	195.442.862	1.174.635,26	% 74,81

Gastuak	Hasierako aurrekontua (pezetatan)	Behin betiko aurrekontua (pezetatan)	Aitorturiko betebeharrak (pezetatan)	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)	Bete-tzearen %
1. Langileen ordainsariak	25.473.380	25.473.380	26.298.059	158.054,52	% 103,24
2.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	37.367.932	37.367.932	45.880.209	275.745,61	% 122,78
3. Interesak	9.502.504	9.502.504	9.904.492	59.527,20	% 104,23
4. Transferentzia arruntak	12.997.689	12.997.689	10.988.681	66.043,30	% 84,54
6. Inbertsio errealak	80.480.873	153.207.904	140.377.446	843.685,44	% 91,63
7. Kapital transferentziak	12.542.777	12.542.777	3.544.478	21.302,74	% 28,26
8. Finantza-aktiboen aldaketa	10.149.687	10.149.687	59.899	360,00	% 0,59
9. Finantza-pasiboen aldaketak	0	0	0	0,00	% 0,00
GASTUAK, GUZTIRA	188.514.842	261.241.873	237.053.264	1.424.718,81	% 90,74

ALDEAK			-41.610.402	-250.083,55	
---------------	--	--	--------------------	--------------------	--

V.2. BALANTZEAREN EGOERA-INBENTARIOA

AKTIBOA		PASIBOA	
DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA	DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA
Ibilgetua	24.542.360	Funts berekiak	-178.106.531
1. Ibilgetu materiala	18.072.692	1. Ondarea eta erreserbak	-177.323.927
2. Ibilgetu ez-materiala	0	2. Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	6.014.986	3. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-782.604
4. Herri ondasunak	454.682		
5. Finantza ibilgetua	0	Epe luzerako zorrak	175.287.204
6. Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	175.287.204
Ibilkorra	47.664.621	Epe laburreko zorrak	75.026.308
7. Zordunak, itxitako aurrekontuak, eta aurrekontuez kanpokoak	12.675.205	5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak aurrekontuez kanpokoak	4.916.091
8. Aurrekontuko zordunak	32.427.059	6. Aurrekontuko hartzekodunak	70.110.217
9. Finantza kontuak	2.562.357		
Aktiboa, guztira	72.206.981	Pasiboa, guztira	72.206.981

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

MURILLO EL FRUTOKO UDALEKO ALKATEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Javier Gárriz Gabari jaunak, Murillo del Frutoko Udaleko alkateak, aipatu udala ordezkatzuz, idatzi honen indarrez eta geroko tramiteetan ere adierazpenak egiteko aukera baztertu gabe, egin-tza honetan ondoko alegazioak aurkezten dizkio Comptos Ganberak eginiko txostenari:

ALEGAZIOAK.

Ondare egoerari dagokionez, ez dugu ontzat jotzen ondare-egoera negatiboari buruzko ondorioa, alegia, inbentarioa gaurkotu gabe dagoela;

esan beharko litzateke ondare egoera erreala egiterik ez dagoela inbentarioa egiten ez den bitartean. Gure ustez erreferentziako daturik izan gabe atera den ondorioa ezin dela agertu; gure ustez ondare egoera islatzeko ezintasuna ezartzea litzateke zuzena.

Bigarrena.- Gaur egungo jarduera ekonomiko finantzarioan, atal horretan jasotakoa ez da zuzena, zeren eta udal honetan idazkari kontu-hartzai-learen figura pertsona bakarrean biltzen da; horrenbestez, ezin da ondorioztatu kontu-hartzai-letzan atzerapena dagoela.

Hirugarrena.- Egoera ekonomiko eta finantzarioaren egoera dela eta. Gure ustez beharrezkoa da modu argi eta erabakigarrian zehaztea zorpetzea herrian egin diren inbertsio handiei zor zaie-la; horrenbestez, argi geratu behar da ez dela zorpetzerik sortu gastu arruntaren ondorioz.

Laugarrena.- Magdalena kaleko obrak urbanizazio obrak dira, Lurraldearen antolamendu eta

hirigintzari buruzko Legearen arabera; txostenean ez da argi gelditu, horrenbestez, udala hirigintza-kudeaketako sistema baten bitartekari aritu zela. Beharrezkotzat jotzen dugu berariaz adieraztea gastu hori harengatik onura jaso duten auzo guztiek ordaindu behar dutela.

Azalduakoa dela eta, ESKATZEN DU:

Alegazioen idazki hau tramitera onartzea eta organo eskudunak hura kontuan hartzea kasuan kasuko txostena idazteko garaian.

Murillo el Fruton, bi mila eta biko azaroaren hamahiruan.

Alkate-udalburua: Javier Gárriz Gabari

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA.

2002ko azaroaren 18an, Murillo el Frutoko Udalak udal hori fiskalizatzeko behin-behineko txostenari eginiko alegazioak jaso dira Comptos Ganbera honetan.

Alegazio horiek txostenean jasotako zenbait alderdi osatzen edo azaltzen dituzte; hori dela eta, txosten hau behin betikotzat jo eta alegazio horiek txosten honen eranskin gisa sartzea erabaki dugu.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an.

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

2003. urtean etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulua igotzeari buruzko aholkularitza txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 23an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko 2003. urtean etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulua igotzeari buruzko aholkularitza txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko abenduaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2003. urtean etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulua igotzeari buruzko aholkularitza txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (21. or.).
- II. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurkezturiko proposamena, modulua igotzekoa (22. or.).
- III. Helburua eta norainokoa (22. or.).
- IV. Ondorioa (23. or.).

I. SARRERA

Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta

etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen maiatzaren 6ko 9/2002 Foru Legeak ezartzen du, 3. artikuluan eta bigarren xedapen iragankorrean, moduluen zenbatekoa urtero gaurkotuko duela Nafarroako Gobernuak, Comptos Ganberak aldeko txostena eman ondoren.

Gaurkotze hori egiteko, honako formula hau aplikatuko da:

$$M' = M \times [1 + (0,725 \times EKI + 0,275 \times KPI):100]$$

Honela irakurririk:

“M’”: modulu berria

M: aurreko modulua

EKI: eraikuntzako kostuen indizearen ehuneko aldaketa, hileroko azkeneko azpi-indize eza-gunen arabera, aurreko urteko hilabete berekoen aldean. Kostu horiek lan-esku, energia eta materialak izanen dira.

KPI: kontsumorako prezioen indize orokorraren ehuneko aldaketa, indize ezaguneko azkeneko hilabetekoaren eta aurreko urteko hilabete berekoaren artekoa.

Beranduago, 204/2002 Foru Dekretuak, irailaren 30ekoak (horren bitartez aldatzen da 276/2001 Foru Dekretua, zeinak arautzen baitu zer finantzaketa eta laguntza neurri hartu behar diren etxebizitza gaietako ekintza babesgarrietarako, bizileku eraikinak sustatzeko, ikuskapen eta

kontrolerako, Nafarroako babes ofizialeko etxebizitzaren prezio araubidea eta deskalkifikazio aukerak finkatzeko), hirugarren xedapen gehigarrian zehaztu eta garatzen ditu aurreko formulako osagaiak. Eta hala:

“KPI faktorea izanen da Foru Lege horrek ezarritako epean kontsumo-prezioen sistemako indize nazional orokorrak izandako aldaketari dagokiona.

EKI faktorea (Eraikuntzako Kostuen Indizea) zehaztuko da honako formula honen bitartez:

$$EKI = 0,40 L + 0,10 E + 0,11 Z + 0,10 S + 0,10 Zr + 0,04 Eg + 0,15 KPI$$

Letra bakoitza dagokio honako hauek urtean ehunekotan izaten duten aldaketari: L laneskua, E energia, Z zementua, S produktu siderurgikoak, Zr zeramika-materialak, Eg egurra, maiatzaren 6ko 9/2002 Foru Legean ezarritako epeetan; gainerako materialei, 0,15 koefizientearen bidez haztaturik, aplikatuko zaie Foru Lege horrek ezartzen duen epean kontsumo-prezioen indizearen ehunekoak izan duen urteko aldaketa.

Harik eta Nafarroak materialen eta laneskua-ren prezioen aldaketen berri emateko sistema berekia izan arte, E, Z, S, Zr eta Eg letren bidez adierazitako materialetarako aintzat hartuko dira prezio-berrikuspenerako Estatuak argitaratuak; laneskuari dagokionez, aintzat hartuko da Lan Kostuei buruzko Inkestan adierazitakoa, zeina Estatistika Institutu Nazionalak argitaratzen baitu, edo Nafarroako eraikuntza-sektoreko hitzarmen kolektiboen bilakaeratik ondorioztatzen dena.”

2002ko abenduaren 9an, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Comptos Ganberari igorri zion modulua 2003rako igotzeko proposamena, Ganberak nahitaezko txostena eman zezan.

II. INGURUMEN, LURRALDEAREN ANTO-LAMENDU ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENA, MODULUA IGOTZEKO

Departamentuak aurkezturiko igotze-proposamenak honako oinarri hauek dauzka:

- Indize guztiak ezagunak dituen azken hilabetea 2002ko ekaina da.
- Laneskuari dagokionez, Estatistika Institutu Nazionalak eraikuntzaren sektorerako egindako lan kostu nazionalen indizea aplikatzen da, 2002ko bigarren hiruhilekoari dagokiona.
- Materialei aplikatzekoak zaizkien indizeak argitaratu dira Ogasun Ministerioak horretarako

emandako aginduetan, eta zehaztu diren azkenak 2002ko ekainari dagozkio.

- KPI nazionalaren aldaketa Estatistika Institutu Nazionaletik lortu da.

Legez ezarritako formulei aurreko indizeak aplikatuz, honako emaitza hauek lortu dira (zenbatekoa eurotan):

Modulua	Zenbatekoa, 2002	2003rako proposaturiko zenbatekoa	Aldaketaren %
Haztatu gabea	756,90	778,40	2,84
Haztatua	790,96	813,43	2,84

Beraz, Departamentuak proposatzen du etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan Nafarroan 2003. urtean aplikatuko den modulua ehuneko 2,84 igotzea.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

9/2002 Foru Legea betetzeko xedez eta Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2002ko jarduketa programan sartu da arestian deskribaturiko eskariaren xedeari buruz aholku emateko txosten bat egitea.

Txosten honen helburua da Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurkezturiko igotze-proposamenaren egokitasuna aztertzea, gogoan izanik gai horretan indarra daukaten lege-xedapenak.

Ondorioz, gure lanaren norainokoa hauxe izan da:

- Egiaztatzea ea aplikaturiko indizeak bat datozen indarreko araudiak ezartzen duenarekin, bai haiek hartzen duten denbora-epeari bai haien izaerari dagokionez.
- Formulak eta eginiko kalkuluak berrikustea.

Txostenak lau atal ditu; haietan, esparru orokorra eta egindako lanaren helburuak eta ondorioak islatzen dira.

Azterketa-lana 2002ko abenduan egin zuten auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboaren laguntzarekin.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko langileei eskerrak ematen dizkiegu txosten hau prestatzean eman diguten laguntzagatik.

IV. ONDORIOA

Egindako lanaren norainokoa kontuan harturik, honako ondorio hau adierazi behar dugu:

Gure ustez, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurkezturiko proposamena bat dator eremu horretan ezarritako lege-xedapenekin. Beraz, moduluan 2003ko ekitaldirako proposaturiko balio-gehikuntza, ehuneko 2,84, eskura zegoen informazioa

baliatuz eta araudiak jasotzen dituen formula eta indizeak erabiliz kalkulatu da.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da aholku-txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Arradako Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Arradako Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Arradako Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (23. or.).
- II. Helburua (23. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (24. or.).
- IV. Iritzia (24. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren likidazioaren inguruan (24. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (24. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (24. or.).
 - IV.4. Egoera ekonomiko eta finantzarioa (25. or.).
 - IV.5. Gorabeherak (25. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (26. or.).
 - V.1. 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (26. or.).
 - V.2. Balantze-inbentarioaren egoera (27. or.).

I. SARRERA

Arrada Murillo el Cuendeko udaleko kontzeju bat da, Nafarroako erdialdean dagoena, Iruña eta Tafallaren hegoaldean kokatua; 2002ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera, 523 biztanle dauzka; hau da udalerri osoaren ehuneko 80.

2001ean azpimarratu beharra dago Udalak eskumen ugari utzi dituela Arradako kontzejuaren esku, bai eta udaleko gainerako kontzejuen esku ere.

Kontzejuak bere jarduerak egiteko ez du erakunde autonomorik ez eta kontzejuaren enpresa publikorik ere.

Kontzejua ondoko mankomunitate eta partzuergoetako kide da:

- Aragoi Ibarreko Mankomunitatea.
- Erriberriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Kontzejuaren zifra adierazgarrienak 2001eko ekitaldian hauek dira:

	Exekutaturiko gastu-aurrek. (pezetak, milioitan)	Exekutaturiko dirusarrera-aurrek. (pezetak, milioitan)	Langileak, 2001-12-31n
Kontzejua	64,9	69,2	2

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Toki ogasunak eraentzeko araei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzeko abenduaren 20ko 19/1990 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren

eta Arradako kontzejuaren 2001eko aurrekontuko gastu eta dirusarrera aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateei aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei oro har aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

- a) Udalaren 2001eko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 2001eko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Kontzejuaren jardura ekonomiko eta finantzarioa legezketasun-printzipioaren arabera garatzen den ala ez aztertzea.
- d) Zein zen kontzejuaren finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Arradako Kontzejuaren 2001eko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Kontzejuak bere eragiketak Nafarroako toki administrazioarako kontabilitate sinplifikatuko instrukzioaren arabera erregistratzen ditu (273/1998 Foru Dekretua). Jarraibide hori 2001eko urtarrilaren 1ean ezarri da kontzejuan.

Beraz, eginiko lanak dirusarrera eta gastuen kapitulu ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoera-balantzea ikuskatu ditu, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolari buruzko gaiak aztertu ditu.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak aplikatu ditugu, baldintzen eta aurretik

kontzejuari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoaren arabera.

Kontzejuaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasotzen dira txostenean.

Azterketa-lana 2002ko urrian egin da.

Kontzejuko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

IV. IRITZIA.

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Arradako kontzejuaren 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Sektore publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN INGURUAN

2001eko aurrekontuaren exekuzio egoera-erriak, erantsita datorrenak, nahiko ongi agertzen du kontzejuak fiskalizaturiko ekitaldian eginiko eragiketen multzoa; halere, esan beharra dago ekitaldia ixterakoan ez duela eragiketen mozketak egokia egin, nahiz eta horrek esateko moduko eraginik izan ez aurrekontuaren exekuzio orokorrean.

IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Ibilgetuaren eta zorpetzearen aldaketak ez dira balantzean behar bezala erregistratzen.

Aipaturiko alderdiek eta udal inbentarioaren garapen eskasak –hura izanik, gainera, 2001eko abenduaren 31ko balantze-egoeraren kontusailik aipagarriena– kontzejuak 2001eko abenduaren 31n duen ondare egoerari buruzko iritzia ematea eragozten digu.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, kontzejuaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da, nahiz eta lan legediaren eta legedi fiskalaren arloetan hainbat ez-betetze antzeman diren.

IV.4. EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Arradako kontzejuak finantza-egoera ona du 2001eko abenduaren 31n: 12,0 milioi pezetako finantza-zorra eta 5,1 milioi pezetako aurrezki garbia dauka ekitaldia ixterakoan. Diruzaintzako gerakin positiboak 7,3 milioi pezeta egiten du.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago transferentzien dirusarrerren % 55 egiten dutela; hori dela eta, era horretako dirusarrerren mendetasun handia dago.

IV.5. GORABEHERAK

Gaur egun, kontzejuak lau errekurtsu dauzka, denak udalaren eta kontzejuaren artean eskumenak banatzeko moduari buruzkoak.

Praktikan udalaren eta kontzejuaren arteko eskumenen banaketari buruzko eztabaida horrek berekin ekarri du herritarrei 2002ko bigarren sei hilekoan uraren eta zaborren kontsumoari buruzko ordainagiriak bikoizturik ailegatzea, Murillo el Cuendeko Udalak eta Arradako Kontzejuak bakoitzak bere aldetik igorri baititu.

Ez dakigu aipatu errekurtsoen ondorioz kontzejuari ondare-erantzukizunen bat eskatu ahalko ote zaien.

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu Arradako kontzejuak:

a) Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria, aurre-kontabilitateko agiriari erreferentzia eginen diona, eskatu behar da.

d) Betebeharrak eta ordainketak aitortzeko agiri guztiak kontzejuko alkateak behar bezala onetsirik eta sinaturik egon behar dute, idazkari kontu-hartzaileak berariaz kontu-harturik.

c) Udal inbentarioa banakako elementuen arabera garatzea, balantzearen egoera-orria-inbentarioaren ibilgetuarekin adosturik, bereziki ekitaldiko inbertsio errealekin.

d) Inbertsioak besterentzearen kontzeptuan eginiko eskubideen likidazioak ondokoetan islatu behar dira:

- Udal inbentarioa, inbentarioaren balioan baja erregistratu delako.

- Besterentzearen salmentaren eta inbentarioko balioaren arteko aldearen ondorioz gertatzen diren aparteko etekin edo galeren emaitza ekonomikoaren egoera-orria.

e) Eskubideen likidazioan eta gastuen aitorpean sortzapearen printzipioa sistematikoki aplikatzea.

f) Ekitaldiko inbertsio errealak behar bezalako euskarria eduki behar dute; betiere, lege indardunei jarraituz, nahitaezko kontratazio espedientea egin beharko da.

Finantzen ikuspuntutik, egoera garbia du, zor moderatuak baititu eta diruzaintza-gerakina positiboa baita.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**V.1. 2001EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Zerga zuzenak	0	0	0	0,00	
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0,00	
3 Tasak eta bestelako dirusarrerak	13.634.022	13.634.022	13.935.061	83.751,40	% 102,21
4. Transferentzia arruntak	21.842.740	21.842.740	21.076.517	126.672,42	% 96,49
5. Ondare dirusarrerak	2.733.529	2.733.529	2.494.956	14.994,99	% 91,27
6. Inbertsio errealak besterentzea	2.500.000	2.500.000	2.500.000	15.025,30	% 100,00
7. Kapital transferentziak	19.600.000	19.600.000	17.191.625	103.323,75	% 87,71
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketak	11.500.000	11.500.000	12.000.000	72.121,45	% 104,35
Dirusarrerak, guztira	71.810.291	71.810.291	69.198.159	415.889,31	% 96,36

GASTUAK	Aurrekontua (pezetatan)		Aitortutako betebeharrak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Langileen ordainsariak	9.343.764	9.343.764	8.187.190	49.206,00	% 87,62
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa	23.136.527	24.445.830	22.828.764	137.203,63	% 93,39
3. Interesak	25.000	25.000	24.783	148,95	% 99,13
4. Transferentzia arruntak	2.505.000	2.505.000	1.399.179	8.409,24	% 55,86
6. Inbertsio errealak	36.800.000	35.490.697	32.507.380	195.373,29	% 91,59
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketak	0	0	0	0,00	
Gastuak, guztira	71.810.291	71.810.291	64.947.296	390.341,11	% 90,44

ALDEAK	0	0	4.250.863	25.548,20	
--------	---	---	-----------	-----------	--

V.2. BALANTZE-INBENTARIOAREN EGOERA

AKTIBOA		PASIBOA	
DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA	DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA
Ibilgetua	217.996.291	Funts berekiak	225.703.005
1. Ibilgetu materiala	46.355.552	1. Ondarea eta erreserbak	225.656.338
2. Ibilgetu ez-materiala	0	2. Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	171.640.739	3. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	46.667
4. Herri ondasunak	0		
5. Finantza ibilgetua	0	Epe luzerako zorrak	0
6. Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	0
Ibilkorra	22.852.567	Epe laburreko zorrak	15.145.853
7. Zordunak, itxitako aurrekontuak, aurrekontuez kanpokoak	697.277	5. Aurrek. itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.776.409
8. Aurrekontuko zordunak	12.180.726	6. Aurrekontuko hartzekodunak	13.369.444
9. Finantza kontuak	9.974.564		
Aktiboa, guztira	240.848.858	Pasiboa, guztira	240.848.858

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

28/2003 Erabakia, maiatzaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak emana, Gloria Vicenta Arancón Largo andrea Arartekoaren aholkulari tekniko izendatzen duena

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 40. artikuluan xedatutakoaz baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehena. Gloria Vicenta Arancón andrea behin-behineko langile izendatzea Arartekoaren aholkulari teknikoaren eginkizunak betetzeko: izendapenak 2003ko maiatzaren 19tik aitzina izanen ditu ondorioak.

Bigarrena. Izendapenak dakarren gastua gastuen aurrekontu luzatu indardunaren "Behin-behineko langileen lansariak" izeneko 110 kontusailaren kargura ordainduko dela xedatzea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko kontu-hartzaileari igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko maiatzaren 19an.

Arartekoa: M.^a Jesús Aranda Lasheras

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 40,27 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Navas de Tolosa, 1</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	--